

# Nafarkaria

• ostirala • 2000ko ekainaren 2a

**Egunkaria**

**Gehigarri honetan**



**Altsasu** • Igandean V. BTT Zeharkaldia egingen dute, 40,5 kilometrokoa

**Juan Mari Feliu** • «Mendizaletasunak askatasun kutsu handia dauka»

## Zaleak



Osasuna futbol taldea Lehen Mailara igotzear dago. Nahikoa du igandean Huelvako Recreativori irabaztearekin. Ez da lan makala, baina ezinbestean egin beharko du, bere jarraitzaileen amets eta desioak zapuztu nahi ez baditu behintzat. Egia errateko, nahiko abandonaturik egon da Osasuna Bigarren Mailan. Eta, orain, iruindar guziak dira Osasunaren jarraitzaile sutsuak; guziek darabilte lehen pertsonaren plurala. "Igandean igoko gara", diote. Zaleak, beraz, igotzeko prest dira; igoera ospatzeko prest dira. Eta Osasunak ezin die uste eta nahi hori bertan behera utzi.



# Arraioz ●

## Maiatzeko Erreginak

Arizkunen aurten erreginak ez dira koplak kantatzera atera

Udaberriari loturik dagoen Maiatzeko Erreginen Baztango ohitura 1936an galdu zen. Arraiozen, Valentin Barraganen eskutik, duela sei urte berreskuratu zituzten Maiak edo Erreginak.

ASPALDI, MAIATZEKO igande guztietan elkartzen ziren neskak bai Arizkunen eta baita Arraiozen ere Maiatzeko Erreginen besta ospatzeko. Arraiozen, aurten maiatzeko azken asteburuan bakarrik elkartu dira herriko neskak.

Arraiozkoa da, hain zuzen ere, gehien ikertu den Maiatzeko Erreginen besta. Valentin Barragan baztandarrak Laratz dantzari taldearen ikerketak erabili zituen ohitura berreskuratzeko. Arraiozko Maiak etxex etxe doaz kantari, eta dirua eskatzen duten bitartean jota batzuk dantzatzen dituzte. Bi neska (Erreginak) zuriz jantzten dira eta buruan lore koroa paratzen dute.

Lortutako diruarekin Maiek bi kandela kizkur (lehenago garestienak ziren)



Arizkunen aurten ez dute Maiatzeko Sorginen besta ospatu. Arraiozen bai, ordea. ● EGUNKARIA

erosten dituzte eta apaizari ematen dizkiote abesti bat kantatuta Ama Birjinarentzat. Arraiozko koplak badute zerikusirik Arizkungoekin, baina hitzak ezberdinak dira. Dirurik ematen ez duenari zera kantatzen diote:

«Utzan utzan ixilik,  
horrek ez din dirurik

hor dian boltsa zaharra  
zorri zuriz beterik  
akio eta makio  
lepaezurre hausten balekio  
hi barber ta ni mediku  
sendatuko ez balekio».

Arraiozko Rosario Karrikaburu da kantuak berreskuratzen lagundu zutenetarikoa bat. Zera erran du

aspaldikoa gogoratuz: «Gu joaten ginen sarats larreak bilatzera koroak egiteko eta ondotik bertan loreak jartzzen genituen». Garai batean jantziak izugarritzko garrantzia zeukan. Zuriz jantzten ziren, etxean zeuden arroparik hoberenekin, askotan jaunartzearekin.

Arizkunen aurten ez da egin Edertasunaren eta emankortasunaren irudi bezala hautatzen zen Erregina Arizkunen herriko neskatxa guztien artean. Zuriz jantzita, buruan lorez egindako koroa zeraman Erreginak, eta ohol baten gainean jarritako aulki batean eramaten zuten etxe batetik bestera. Herrian zehar itzulia ematen zuten koplak kantatzen eta dirua eskatzen. Abestiak ezberdinak ziren, bidean aurkitzen zuten pertsonen arabera. Etxekoandrearen kanta, apaizarena, gizonena, emakumeena, alargunena, mutilena eta dirurik ematen ez dutenen kanta dute. Euskaraz ulertzen ez dutenentzat bada erdaraz egindako beste koplak bat ere. Koplak kantatzeaz batera, jotak dantzatzen zituzten. Baina aurten ohitura eder hau eten egin da Arizkunen. Oraindik ezin daiteke esan desagertuko den edo ez, baina, zoritxarrez, aurten ezin izan dugu Maiatzeko Erreginarik ikusi.

→ Rakes Goñi

### Barañain

#### Ausart zaitez irakurtzen

Heldu den ostegunean akituko da *Ausart zaitez irakurtzen* lehiaketa literarioan parte hartzeko epea. Barañaingo Udalak hamabi galderaz osatutako galdetegia egin du. Galdera horien erantzunak 1989tik Barañainen egin ohi den literatur lehiaketako sari nagusia irabazi dutenen hamabi narrazio laburretan daude. Narrazio horiek argitaraturik ditu Udalak eta eskuragai daude Barañaingo zein Iruñeko liburu-dendetan. Hala, ber, Nafarroako liburutegi publikoetan ere badira. Hamabi liburu horiek bizpahiru ordutan irakur daitezke lasai asko, 40 eta 110 orrialde bitartekoak baitira. Hortaz, lehiaketan parte hartu nahi duenak denbora aski eta sobera du osteguna arte. Hamabi liburutxo horien artean bakararra da euskaraz, Isidro Rikarteren *Jose Etxeberria*. Dena dela, euskaldunek ez dezatela pentsa erdaldunek baino aukera gehiago dituztela lehiaketa irabazteko. Izan ere, gutienez zortzi galderet ongi erantzun dietenen artean egingen da sariaren zozketa. Kirol edo kultura ekitaldietara doan sartzeko abonua dira sariak.

Galdetegia Barañaingo Kultur Etxean eskura daiteke, eta hortxe bertan entregatu behar da (Nafarroako Komunitatea kalea, 2). Lehiaketaren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 948-185310 telefonora.

→ Asier Azpilikueta

### muga enea

MIKEL REPARAZ



## Arriskutsua osasunarendako

Azken boladan ez naiz Iruñean izan. EGUNKARIAn irakurri dudaren arabera —eta ikusitako argazkiak ikusirik— ez zait damu gainera. Izan ere, Nafarroako Gobernuak iturriek diotenez, herritarren osasuna arrisku larrian dagoke, FCC enpresako langileen bat-bateko nagitasun konprengaitza dela medio. Arrisku larrian, Mozambikoko aintziren kiratsetan kolera eta tifus eta malariaren laino beltzak zabaldu zirenean bezala. Zaborra kontainerretan metatzen hasi zen lehenbizi, edukiontzien estalkiak herstea ezinezkoa bilakatu arteraino; eta edukiontzien tapen funtzio barregarria disfuntzio bihurtu zelarik, etxekoandre izuti batek espalo gaine-

an, kontainer berdearen eta urdinaren artean utzi zuen zabor poltsa, lotsati, inork ikus ez zezan bi alboetara begira. Hura izan omen zen seinalea zaborrieriaren egun ilunetan Iruñeko karrikak ikuskatu zituen lekuko zuzenak emandako datuen arabera betiere, eta etxekoandre beldurti hark etxeko ataria atzera gurutzatzearekin batera beste bi aldamen atera ziren, eta bat-batean, bertako kronikek diotenez, milaka zabor poltsa erori ziren espalo gainean, etxeko ezkaratzetik, inguruko balikoietatik eta leihorik ezkutueneretik. Marcillako aitzur-jaurtiketaren bertsio urbanoa.

Yogur bote erdi huts erdi beteak, platan eta laranja azalak, pizza zati zurrunkak, oilasko

tripa ustelak, arrautza kaskalak, tanpoi zein kondoi... Horrek guziak egiten du zaborra zabor, zakarra zakar, zarama zarama eta hondakina hondakin. Eta, bien bitartean, herritarren osasuna arrisku bizian, XIV. mendeko izurritea Nafarroa ailegatu zen hartan bezala. Baina izurri beltza Asiako arratoiek eta turkiar soldaduek ekarri bazuten ere, tenoreotan langile mugimenduak ekarriko du gaitza upeenekoek baino lehen iragarria zuten hori haien arbaso politikoei. Iruñean ikusi berri dugu hori. Iganderako behinik behin konponduko ahal da egoera. Ordurako, sanferminen aitzinsolas, Osasunaren arrisku egoera konpondua izanen baita.




## Altsasu

## BTT zeharkaldia igandean

Burunda taldeak Mendiko Bizikletaren V. Proba antolatu du aurten



## Ibilbidea

ALTSASU-ALTSASU  
40,5 km

Iazko zeharkaldian 503 txirrindularik hartu zuten parte. Igandean parte-hartzaile gehiago izatea espero dute antolatzaileek.

EGUNKARIA

**Mendiko bizikleta maite dutenek eta Sakanako bidexkak ezagutu nahi dituztenek igandean dute zita. Izan ere, egun horretarako 40,5 kilometroko zeharkaldia antolatu dute.**

Burunda txirrindulari taldeko BTT atalak antolatu, Altsasuko V. BTT Zeharkaldia (ez lehiakorra) egingen dute igandean. Mendiko bizikletaz egin beharreko ibilbidea 40,5 kilometro ditu, eta Altsasun hasi eta bukatzen da. Hamalau urtez goitikoek har dezakete parte, eta kaskoa derrigorrez jantzi behar da.

Ibilbidea urtetik urtera aldatu egin da. «Aurtengoa iazkoa baino pixka bat zailagoa da, teknika handiagoa eskatzen du», erran du Burunda taldeko kide eta zeharkaldiko antolatzaile Pablo Lopezek. «Hainbat erreka igaro behar dira, baina edozein kirol egi-

ten duenak lasai asko har dezake bizikleta igandean eta zeharkaldia hiruzpalau ordutan egin». Lopezek komentatu duenez, Araban egiten dituzten zeharkaldiek inbidia ematen zieten Burundakoei eta, hala, euren zeharkaldia antolatzea otu zitzaion. Aurrenekoa duela lau urte egin zuten. Orain arteko zeharkaldietan parte-hartzaile gehienak Hego Euskal Herrikoak dira, baina iazkoan Espainia, Frantzia eta Alemaniako txirrindulariak ere izan ziren.

Izena igandean bertan eman daiteke, Altsasuko Foruen plazan, 08:15etik 09:15era. Hain zuzen ere, or-

du horretan eta toki horretatik abiatuko da zeharkaldia. Lopezek adierazi duenez, iazko parte-hartzaile kopurua aise gainditzea espero dute. Iaz 503 txirrindularik egin zuten zeharkaldia, eta aurten 600 txirrindulari inguru egotea espero dute. «Mendiko bizikletan dabilen jendeak dagoeneko ezagutzen du Altsasuko zeharkaldia, finkatzea lortu dugu». Parte-hartzaile guziei elastikoa eta otordua emanen diete, eta bizikletaren inguruko hainbat opari zozketatuko dituzte izena aurretik eman dutenen artean.

Asier Azpilikueta

ur dai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Globaleitor (I)

Nire Macintosh fidelaren bidez Interneten datu batzuen bila aritu naiz gaur. Hitz xumeekin azaltzeko, funtsean HTML kodean Flash artxibo bat (.swf) publikatzeko scriptfree baten bila aritu naiz. Hau da: Javascript programazio hizkuntza madarikatuaren beharra sailhesteko modu baten bila. Zer esanik ez, alde aurretik jakin banekien aurkituz gero informazioa ingelesez egongo zela, baina, hala eta guztiz ere, aurrera egin dut. «Erota zaude!» -esango didazue. «Debekua hautsi egin duzu! Euskaldunak ezin gaitzke ez global ez kosmopolita ez moderno izan! Debekatu daukagu». Badakit. Baina, zer esango dizuet, egiten ari naizen lanerako kode bi horiek behar nituen eta kitto! Benetan, ez nuen inor probokatzeko asmorik. Benetan. Handik bi minutura eta Macromedia software etxeko developpers/support/publications orrialdeetan sartuta nengoenean, etxeko ateak zart! egin du. «Globaleitor?» -galdetuko duzue. Bai adiskideok: Globaleitor. Nor bestela? Segituan ordenagailua itzali eta modema ezkutatzeko ahaleginu naiz, batabatean gelako ateak zart! egin du eta hantxe agertu da munstroa! Dena burdina, berun, eta altzairuan egin! bi metroko altuerak, bere Burmuin Elektronikoko Hiperpluralista unibertsitateko katedratikoak egin! bere programa Multitolerantea irratiko tertuliano trebene garatua! Globaleitor!, bai horixe! gure amonak deskribatzen zuen igual-iguala! Nik, disimulatuzko, txapela jantzi eta beti nirekin daramatzen txistua eta danbolina hartu eta, jotzen ez bada- kit ere, zarata etniko pixko bat ateratu. Alferrik, ordea! Globaleitorrek modema ikusi du, ordenagailua ikusi du eta Interneteko konexioa sumatu du! Eta niregana hurbildu da potoklon-potoklonka... (segituko du).

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Bizkorrago + gazteago

L A R R E K O A F A R I A

2000ko ekainaren 9an, ostiralean 21:30ean

Atarrabiako Paz de Ziganda Ikastolan.

AFARI TXARTELAK: 2700 pezetatan salgai, Xalbador eta Auzolan liburudendetan, Karrikiri Elkarteetan eta Euskalerrria Irratian.

ANTOLATZAILEA: EUSKALERRIA IRRATIA ELKARTEA.

Iratxe Monastegia, 45 - 13. • 31011 IRUÑEA (Nafarroa)

Tel.: 948 17 01 51 / 948 17 12 32 (publizitatea) - Faxe: 948 19 60 30 • e-mail: iruneko@arrakis.es





Jorge Sandua • 24 urte • Ingeniaria



«Osasunak Bigarren mailan sei urte emanen zituela iragarri nuen»

**■ Osasunazale itxura hartzen dizut?**  
Bai, zale amorratua naiz. Zazpi urte dira bazkide naizela. Igandero joaten naiz Sadarrera, eta igandero Sadarrera joan garenok oso futbol txarra ikusi izan dugu. Sei urtetan ez dugu futbol onik ikusi, Paquito entrenatzailearekin izan ezik. Bigarren Mailako partida aspergarri guziak ikusi ditut.

**■ Gogoan duzu duela sei urteko jaitsiera?**  
Bai, noski. Asko sufritu nuen, pena handia eman zidan, baina etortzeaz zela ikusten zen. Eta jaitsi zelarik, Betis eta antzekoak gogoan, pentsatu nuen Osasunak sei bat urte emanen zituela Bigarren mailan, baldin eta jaitsi eta hurrengo urtean igotzen ez bazen. Dena dela, aurtan igotzen ez bagara ere, osasunazalea izaten jarraituko dut.

**■ Baina benetan igoko gara?**  
Bai, bestela hilen naiz. Igandean 1-0 irabaziko dugula espero dut, baina badakit Recreativok kontraerasoan jokatuko duela. Horrek beldurra ematen dit. Gainera, Osasunak hil edo biziko partida hauek galdu ohi ditu.

**■ Osasunazale amorratua zarela erran duzu. Hortaz, Logroñesen etsai amorratua izanen zara. Zer nahiago duzu, Osasuna igotzea ala Logroñes Bigarren B Mailara jaistea?**  
Nahiago dut Osasuna igotzea. Izan ere, galdu edo irabazi, Osasuna maila bat goitiago egonen da beti ●●●



Carmen Almunia • 24 urte • Dendaria

«Ezustean hartu gaitu honek, eta espero baino material gehiago saldu dugu»

Carmenek Sadarreko denda ofizialean egiten du lan. «Osasunaren jarraitzaile amorratua naiz», aitortu du. Osasunako langilea den aldetik, bazkidea ere bada, eta igandeko partidari izanen da. 1980ko igoera ez du gogoan, ezta 1994ko jaitsiera ere. «Lehen ez nintzen horren osasunazalea», aitortu du. «Orduan ez nuen inondik inora honetan pentsatzen».

Lan izugarria du egunotan. «Banderatxo bat, mesedez», eskatu dio bezero batek. Banderatxoak bai, baina banderarik jada ez zaio gelditzen, ezta tamaina handiko elastikorik ere. Gehien saltzen diren gauzak gero futbol zelaira eramane dituztenak dira, hala nola elastikoak eta bufandak. «Gero etorriko zaizkigu sanferminetarako zapi eta mandar bila», dio Carmenek. «Gainezka egin digu honek. Igotzeko aukerak ezustean hartu gaitu, eta material asko espero baino lehenago akitu zaigu. Baina laster ekarriko digute gehiago».

Carmen izan zen Gijonen, baina ez da gai bertan jokatu zuen Osasunaren hamaikakoa gogoratzeko. Hala ere, azken partidak «kristorenak» izan direla dio, eta Osasuna Lehen Mailara bere merituegatik igoko dela. Are gehiago, Carmenek dioenez, 3-0 irabaziko du igandean Huelvaren aurka ●●●

Raimundo Riesco • 47 urte • Osasuna tabernako jabea

«Ospatzeko, xanpaina»

Osasuna izeneko taberna Arrosadian dago, Gelbenzu karrikan. Tabernako atarian, partida dagoen bakoitzean, Osasunaren bandera handia paratzen dute. Raimundo ez da bazkidea, igandero taberna irekirik izan behar duelako: «Ez naiz bazkidea, baina bai zale amorratua». Hala ere, Gijonen jokatu zuen hamaikakoa zein izan zen errateko zailtasunak ditu. «Krutxaga, Mateo, Yanguas, Iban Perez...». Ondokoari laguntza eskatu dio, baina hark ere ez du asmatzen. «Igandean ez naiz Sadarrera joanen», dio. «Tabernan egon behar dut, lanean. Hemen ikusiko dugu partida, telebistan». Raimundok dioenez, igotzeko aukerak bera ez du ezustean harrapatu. «Igoko ginela uste nuen hasieratik», komentatu du harro. «Igandean 3-1 irabaziko dugu, eta behar den guzia aterako dugu igoera ospatzeko, xanpaina eta guzi. Xanpaina igual doan emanen dugu, baina afaria ez. Ez zabaldu hortik barra librea izanen dugunik» ●●●



Osasunako zaleek, horratuek zein azken unekoek, igandean Lehen Mailara igotzea espero

Diotenez, Osasuna da nafarratzen dituen hitz bakarrenetarikoa bat. Nahikoa da egunotan Iruñe karriketan barrena bueltatxo bat ematea hori egia dela ikusteko. Osasunazaleen euforiak iruindar eta nafar guziak hartu ditu. Den bat datoz. Orain, Osasuna Lehen Mailara igotzeaz dela, dena, hala edo nola, gorritxoan jarraitzaile. Eta denak diratzeko prest. Desioa gauzatzea besterik ez da falta. Hona hende desioa duten zale horien guzien lagin bat. →

Testuak: Asier Azpiliku  
Argazkiak: Iñaki Vergara eta Oa Beriain

Sara del Moral eta Edurne Sola • 19 eta 18 urte • Ikasleak

«Gu ere hartu gaitu euforiak»

Futbolari garrantzi askorik ematen ez diotela dirudien arren, Sara eta Edurne azken uneko osasunazaleak dira. Egunotan azterketetan dabilta, baina, esan dute-nez, eurak ere harrapatu ditu euforiak. «Osasuna apur bat abandonaturik genuen Bigarren Mailan», aitortu du Edurnek. «Eta orain, igotzeaz dagoela, ezustean hartu gaitu, eta nabaritu da egunotan euforiko gaudela denak». Sarak dio Osasunaren lorpenek harrotasuna sorrazten diotela. Hala ere, ez du oso garbi ikusten Osasunaren igoera, eta igandean gorritxoek 0-1 galduko dutela uste du. Edurnek, aldiz, kontrako emaitza iragarri du, 1-0. Osasuna igotzen bada Merindadeen plazako iturrian bainatuko ez direla jakinarazi dute, baina nola edo hala ospatuko dute. «Betiere, egun horretako gogo eta estudiatzeko beharren arabera», gaineratu du Edurnek ●●●



Daniel de la Parte • 28 urte • Langile autonomoa

«Pare bat urtetan Bigarren Mailan izanen gara berriz»

**■ Osasuna jaitsi zeneko denboraldia gogoan duzu?**  
Bai, gogoan dut Sadarren Atletico Madrilan aurka jokatu zutenean. Madrildarrek irabazi zuten eta Osasuna zuzenean Bigarren Mailara joan zen, Madrildo zaleek kantatu ziguten gisara. Geroztik ez naiz berriro Sadarrera joan.

**■ Eta orain berriz bueltan Lehen Mailara.**  
Tira, igandean 3-0 irabaziko dugu, igoko gara eta pare bat urteren buruan berriz Bigarren Mailan izanen gara.

**■ Zer deritzozu Iruñea menpean hartu duen euforia honi?**  
Egia errateko, deigarria da. Tenerifeko partida eta gero entzun nuen nola kantatzen zuten Gijonera joanen zirela, eta nik pentsatu nuen giza joak zirela. Eta gero, 5.000 pezetan ordaindu nituen Gijonen sarreraren truke.

**■ Eta zertara joan zinen Gijonera iragan igandean?**  
Oraindik ez dakit. Larunbatean igeri egitera joan eta bertako sorosleak erran zidan trena hartzeko txartel bat soberan zuela eta ea joan nahi nuen. Berez, mendira joatekoa nintzen, baina bertan behera geratu zen nire plana eta trenagatik aldatu nuen mendia. Tira, zirraragarria izan zen Gijongoa.

**■ Azken momentuko osasunazalea zara beraz.**  
Hori da, Mirandari gustatzen ez zaizkion horietakoak. Aurrekoan entzun nion erraten zuela bere bazkideengatik zegoea kezkatuta, ez azken unean apuntatu diren horienagatik. Ni horietakoa nauzu.

**■ Igandeko partidara ez zara joanen hortaz.**  
Ez. Baina Osasunak irabazten badu, ongi.



Jesus Ostibar • 50 urte • Osasunako jokalaria ohia eta taldearen bulegoetako langilea

«Igandeko partidarako sarrera lortzearen denek dute bere istorioa kontatzeko»

Ostibar azkoien 68-69ko denboraldian ailegatu zen Osasuna. Aurrelari adorea zen, arin mugitzen area barruan, eta hamar denboralditan 40 gol sartu zituen. Gero, hogeitaz urte egin du Osasunaren langile bezala, bulegoetan. Bere amazaletasuna ezin daithekeela zalantzan jartze du, beraz. Igandean, noski, Sadarren dena, lanean, alde batetik bestera.

Hasieratik abisuen Ostibarrek: Osasuna aurtan igoko dela, horretarako, azken jardunaldietan eskerak zuen goian, ez lehenago. «Hor goian direnek, Tenerifek edo Salamancak kasiko sufritu dute», komentatu du. «Gu gutxi gara». Ostibarren irudikoz, edozerk baliu merituaz igotzea nahiz besteen akatsengatik igotzea, hau da, txiripaz igotzea. «Igandean 3-1 irabaziko dugu, eta behar den guzia aterako dugu igoera ospatzeko, xanpaina eta guzi. Xanpaina igual doan emanen dugu, baina afaria ez. Ez zabaldu hortik barra librea izanen dugunik» ●●●



Huelvari, iragarri du Ostibarrek. «Dena dela, ez dezala jendeak pentsa gauza erraza izanen denik. Egin behar duguna da lehenbailehen gola sartu norbaitek bihotzekoa har dezan». Nork, baina, ez du argitu.

Ostibar, nola ez, lanez gainezka dago egunotan. «Egun neketsuak dira hauek. Etxean telefonoa eseki gabe utzi dut. Hemen (bulegoan) ez, ez didatelako utzi. Igandeko partidarako apenas zegoen sarrerarik salgai jartzeko. Baina iruindar guziek erraz izan zuten Tenerifere eta Huelvaren kontrako partidarako bi sarrerak baten prezioan eskuratzeko. Orain etortzen dira batzuk eta kontatzen dizute Tenerifere partidara ezin izan zutela etorri eta orain bai. Bakoitzak bere istorioa du kontatzeko, eta zuk sinestu egin behar diezu, baina ez dago deus egiterik» ●●●



## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Iruñeko bertsolari ezezagun bat

**Gutxi dira Iruñeak bertsolaritzari eman dizkion izenak, are gutxiago aurreko mendeetatik ezagun iritsi zaizkigunak; horregatik ere, XIX. mendeko Caldereria karrikako bertsolari batekin topatzea betiere pozgarria zaigu.**



**A**bur! Neure euskaldun maitiak, Navarra, Pamplona, 18. junio, 1895. Francisco Santisteban, Calle Caldereria, n.º 42, 3.º. Hitz horiekin eman zuen agurra Frantzisko Santisteban bertsolari iruindarrak 1895. urtean Beran ospatu ziren Lore Jokoetako sarietara igorritako bertsoetan. Behialakoan Patri Urkizuk, Patxi Intxaurrandietaren eta Piarres Xarrittonen laguntzarekin, argitara eman zuen Anton Abadiaren koplarien guduak: bertso eta aire zenbaiten bilduma liburu ederrean jasotzen da Santistebanen honako bertso zerrenda. Urtez urte 1853-1901 bitartean Abadiaren ekimenez ospatu ziren Lore Joko hauetan guztietan aurkeztu ziren lan poetikoak jaso eta eskaini dizkigu Urkizu lezoarrak; hauen artean, gutxi dira hegoaldeko idazleek eginiko bertsoak, are bakanagoak nafarrekin idatzita-koak, eta finean,



bakarrak iruindarrekin onduri-koak, Santisteban honenak alegia. Horregatik bakarrik, bada, iruindarren artean bere izena ezagunagoa izatea mereziko luke.

Ez ziren 1895ekoak Beran egiten ziren lehenbiziko Lore Jokoak. Urruñan eta Saran gutxi gehien egin ostean, Beran 1880an egin ziren estreinakoz Euskara elkarteak antolatutako, abuztuaren 4an eta 5ean. Lehiaketa literarioan Felipe Arrese Beitia, Agustín Etxeberri eta Ramon Artola saritu zituen Legaz, Gaztaña-ga, Etxaide eta Campion laukoteak osaturiko epaimahaiak, hainbat sailetako sariak eman

gabe utzi zituztelarik. Bi egunetako egitarauak ohikoei jarraitzen zien orpo orpo: ezkil-jotzeak, suak, makil-dantzarien emanaldiak, ekitaldi erlijiosoak, kantaldiak, poesia errezitaldiak eta bertsolariak.

Guri interesatzen zaizkigun lore-jokoetara itzul gaituzten baina. Esan bezala, Beran ospatu bigarren Lore Jokoak 1895eko abuztuaren 3, 4 eta 5 egunetan izan ziren; egitarauaren barruan ohikoak zeuden: makil-dantzariak, Errandonea auzapezaren predikua, su artifizialak Altzaten, pilotariak, txistulariak eta bertsolariak. Abadia bera bertaratu zen ospakizunetara bertako makil-dantzarien ongietorria jaso zuenarik: «Bedorren baimenarekin: Berako aur txiki dantzariak ematen diyote ongi etorriya gure errirat, On Antonio Abadiako Subernotar, euskalzale argi ta jakintsu gañ gañeko jaunari, ta bidez, ta biyotz biyotzetik Jaungoikuari eskatzen diogu lendariziko aldiyan ikusten degun bezala berriz ere poz au izaten lagun dakigula». Literatur lehienakarako Maddalen Larralderen gaia proposatu zen. Larralde hau 35 urteko Sarako emakumea zen, Beran lan egiten zuena, eta iraultza-

tzaren aurkakoa izateaz leporaturik, 1794an atxilotu, epaitu eta hil egin zutena. Dena dela, Larralderen historia interes katolikoetara berregin zen, eta Mariana Pineda baten antzera aurkeztuz, fedearen alde hildako martirra egin zuten. Honen ostean 15 urteko gatzetxo bihurtu zen, bere asmoak soldadu iraultzaileen aurrean ezkutatzeko Berara jaunartzera joan zena, eta horren ondorioz, Sarara itzultzerakoan atxilotu eta Donibane-Lohizunen gilotinatu zutena. Alabaina, gaia sakontasunak ez bide zituen idazleak sobera ere kitzikatu, eta honetan ere, besteetan bezala, lite-

ratur lehiketaren lehenbiziko saria ez zuten eman, aurkezturiko lanek mailarik ez omen baitzuten; nolahi ere, Frantzisko Lopez Alen donostiarrak gorespen aipamena jaso zuen bere *Aingeru bat gehiago* lanarengatik. Honekin batera aurkeztu ziren gainontzeko lanak honako idazleek izan ziren: Duhaldebehere (*Madalen Larralde*), Marianna Hargain (*Ehun eta zenbait urthe*), Betiri Ibarrart (*Madalen Sarako martirra*), Pedro Mari Otaño (*Larraldeko Madalena*), eta izenik gabe iritsi ziren beste lau lanen egileak (*Magdalena Larralde 1793an, Aingeru maitia, Lili gorria eta Magdalena Larralde Sarakoa*). Gure Santistebanen lana aipatu guzti hauekin iritsi zen Berara, eta guk dakigunez, bere lan eza-gun bakarra da, 1793 izenburukoa hain zuzen ere. Badira berrogeita hamar laukote Madalen Larralderen historio ofiziala hala edo nola kontatzen digutena: *I. Erri txiki poltit bat bada / Frantziako euskal errian / Espaniako frontierian / Erraiten diotena Sara (...)* XI. *Magdalena da gure aur ona / Arras ederra, guztiz zuria / Mantxa gabia aren oyia / Arras ona da konfesorio (...)* XV. *Amabortz, hamasei urte izango zituan / Bizi zala bere aita eta amaren ondoan / Lili aingeruak bezala / Zuri zuri anima ta gorputza (...)* XXVII. *Gabako amaiketan etorri ziran / Atejoka dan, dan, dan / Hilargitan berla, berla, berla / Damatxori emen dabila (...)* XXXII. *Burlaturik, itsusturik geldi zan / Soldaduan aurrian atejoka dan, dan / Egun berian il bear degu gilotinan / Dabila ispitzan espainiolan aldian (...)* XL. *Burua gelditu zan alde batian / Eta mantxari gabe gorputza bestian / Anima egazan itzultzen zala / Nola zan minerik gabe eriotzia (...)* XLII. *Arriturik gelditu ziran euskaldun guztiak / Goazen arzagun eta eramane zagan elizatera / Abisu bat bial zagan Sarako errira / Damatxo eder bat il dala Donejoanean...*

etorri ahalean

Patziku Perurena



### Horra beste bost

**E**USKAL KONFORMISMO USTELAZ. Hizkuntza Politika-rako Zuzendari bati neronek aditua: «Joan den bi mila urtean gorde duten kultur ondasunik bereziena beren hizkera dute Goizuetak eta Aranok». Bai ote? Normala da hitza dirubide duenak, hizkuntza hiperbaloratzea. Eta serio ari zela zirudien, eta han zeudenek ere, kazetariak endemas, serio hartu ziotela. Nik nire kolkorako: «Ikusten duk Patziku, edozein erdaratan ergelkeri dena, euskaraz kultura bihurtzen zigutek, eta gu poxik». Ea egin dezagun proba espainolez: «el valor ancestral más genuino de los españoles es el español». Zer moduz? Balio ote digu pitinen bat zentzatzeko?

GIZATASUN SANOAZ. «Las buenas maneras nos abren puertas que no puede abrir la mejor de las intenciones». Orain badakit zergatik naizen hainen zakarra. Intentzio txarrik ez duenari traba egiten baitio manera zaindu behar-rak. Eta manerak zaindu behar larri horrek, intentzio oneko inozentzia eder guzia hondatzen du, jakina. Gizon supertiziosoaren aztarna garbia da neretzako. Gazteria modernoaren gaitzik nabariena horrexetan sumatzen dut: nahiz eta arrunt desmaneratua irudit, artifiziozko manerari ematen dioten inportantzia osoan. Urratzen dutela uste duten trabak lotzen baititu inoiz baino estuago.

BETIKO APEZ BERRIAK. Lagun bakarrari ikasitakoa: «Baliteke antzinako sorgintzat edo aztizat joa izatea gaurko sikologoa egunen batean, edo garai batean sekulako arrakasta izandako engainamendu gisan ikusia izatea, feriz feriburusoilei ileazi saltzen edo beste mila kontuxuri saltzen dabilenaren gisako zerbait. Baina ez dut uste gizonak, kontuxuri zale beti, halakoen ordezkari txaman moduren bat

ukaiteari sekula utziko dionik. Igarleak, horoskopoko egileak, soziologoak, historialariak... ez tul birusaren antzekoak dira, jantzi eta itxuraz mudatzen dira, baina xedez eta bezeroz sekula ez».

SINEZKORRENTZAKO BOSTIKARIK MERKENA: Suizidioari buruzko pasarte eder batean, hala dio Humek: «filosofatze zinezkoak ematen digun saririk ederrenetakoa, sinakeria zikinetatik libratzea da. Gaitz itsaskor horren kontrako beste erremedio guziak pasakorrak edo alferrikakoak baitira». Jenderik gehiena, eguneroko bizimoduaren eta negozietan sekulako argitasuna eta alaitasuna erakutsi arren, barren-barrendik superstiziorik ergelenez itoa bizi da. Baina filosofatze sano baten puntzioak geure izpiritua zultzen duenetik aurrera, pub! Zenbat zikinkeria hustutzen den!... Niri literaturak eman didan saririk ederrena horixe duzu. Hala eta guzi, jenderik superstiziosoena, pedante kultillo trepalarien artean sumatu dut. Superstizioa baita minbizirik humanoena eta unibertsalena.

JOSTAILU AHANTZIA. Zer ari gara munduan aspaldiko urteotan? Niri galde eginen balit norbaitek, «munduaz arrotzen» erantzunen nioke. Ederki nabaritzen dut gero eta arrotzago zaiola gizonari mundua, bere ingurumaria. Edozein nekazari arrotzago da gaur bere alorrean, orain berrogei urte baino; edozein bordari arrotzago bere abere artean, kaletarra arrotzago kaleari, goizuetarra hala berean Goizuetari, edo iruñarra Iruñari. Munduaz arrotzuz eta agortuz goaz, eta ez zaigu beste eskolarik erakutsi inon. Eskolastikak, teoria hutsak, abstrakzioak, munduaz beste egin digu, modu eta leku guztietan. Munduaz aspertu den haur gizajoa dirudi gizonak, ez du ordea, munduaz beste jostailurik.

**Ziria**

• Motxorrosolo •

### Eta iukoa eta mea culpa

**Z**inez ona kolore anitzeko plataformak eraikitzen. Eta iukoa trebea da oso horrelakoetan; gainera, jakin badaki helburu zehatzei heltzen, inoiz ere, moldeak zein diskurtsoa lausoa izanda. Ohiko bilakatu diren bere kritikek kezka sorrarazi. Mea culpa-rik gabeko aldarrikapenik zilegi ote?



Juan Mari Feliu

NAFAROAKO MENDI FEDERAZIOKO LEHENDAKARIA

# «Mendizaletasunak askatasun kutsu handia dauka»

**Gaztetik mendizale;  
1985a arte ez zen  
konprometitu orduan  
Euskal Nafartar  
Federazioa  
zenarekin. Baina  
ordutik, agian  
mendian ikasitako  
estrategia bati  
jarraituz, eman zituen  
pausoek gailurrera  
gidatu zuten zuzen-  
zuzenean, hau da,  
1987an  
lehendakaritza lortu  
zuen arte.**

**H**URRENGO URRIAN UTZI beharko du ziurraski bere azken lehendakaritza izango dena, 1997tik aurrera arte iraun duena. Hori da behintzat Juan Mari Feliuren itxaropena.

**■ Zenbat urtez izan zara mendi federazioeko lehendakaria?**

Askok. Federazioan 1985ean sartu nintzen eta ordutik ez naiz atera; eta lehendakaria bi alditan izan naiz, 1985etik 1989ra arte, eta 1997tik aurrera. Azkeneko aldian beste inor ez zen aurkeztu, eta kargua berriz onartu behar izan nuen, baina espero dut aurrera berriz ez gertatzea horrelakorik. Berrikuntza beharrezkoa da eta, horretarako, jende berria sartu behar da, gazteagoa, eta beste ideia batzuekin.

**■ Zer eskatzen du lehendakartzak?**

Eguneroko ardura bat da. Beti esparru berriak bilatzen ibili behar duzu, eta gauza asko dituzu zure ardurapean. Ni, gainera, Estatuko mendi-ibilaldien zuzendaria naiz, eta horrek guztiak nekatu nau. Orain nire ardura da jendea animatzea hurrengo hauteskundeetan aurkeztetara.

**■ Zeintzuk izan dira karguak ekarri dizkizun poztasun eta atsekabeak?**


Oro har, poztasunetik atsekabeak estali dituzte. Adibidez, Federazioaren 75. urteurrenean Iruñeko Gotorlekuan antolatu genuen erakusketaren prestakuntzan Nafarroako klubek eskaintako laguntzak poztasunez bete ninduen. Eta ez bakarrik horretan, baizik eta urte osoan egin diren ekimen guztietan izan duten parte-hartzea eskertzekoa da. Azken urteetan, gainera, mendizale federatuen kopurua handitu da. Niri, bestalde, karguak pertsona interesgarri asko eza-gutzeko aukera eman dit.

**■ Zer utzi diozu egiteke zure ondorengoiari?**

Iruñean eskalada murrubatu eraikitze proiektua egiteko gelditu da; Udala eta Gobernuarekin landutako ideia da. Asmoa da eskalada talde bat sortzea txapelketetan parte hartzeko. Jadanik Udalak erabakia du murrubatu Aranzadin paratuko dela; oso leku aproposa, gure ustez. Baina ez da finkatu proiektua aurrera ateratzeko egunik. Mendi Teknikazioaren Zentroa ere egiteke gertatu da; hori gabe Nafarroako mendizaletasuna ez da garrantzitsua. Zentro horren eginkizuna mendizaleak prestatzea eta birziklatzea izango da. Horrek profesionalizazioa ekarriko du, ikasketak amaitzean titulu bat emango baitzaie ikasleei.

**■ Mendizaletasuna Nafarroan sendoa dela esan da sarritan. Izan al du aldaketarik azken urteotan?**

«Nik 1964. urtean ezagutu nuen Euskal-Nafar Federazioa. Banatu zirenean, 1986an, lehendakaria nintzen, eta oso gaizki eraman nuen»



soslaia

Juan Mari Feliu Iruñean jaio zen, 1952an. Txikitatik harreman estua izan du mendiarekin. «Nire aita Katalunia aldeko Pirinioetako zen, eta aitona-amonak, Alpeetan jaioak».

Bere zaletasunak prozesu zehatza jarraitu du; lehenengo, bere larruan sentitu du «mendiak igotzera bultzatzen zaituen bameko su hori». Geroago, sentimendu hori beste batzuei transmititzen saiatu da lehendakari zenean, eta, azkenik, bere jakituria eta esperientzia liburuetan islatu ditu.

Guztira, hamahiru liburu idatzi ditu; azkenekoak Iruñerri inguruko ibilbidea eta Urbasa eta Andiatik paseatzen izan dira, aste honetan aurkeztuak, eta Arrako argitaletxeak kaleratuak.

Mendizaletasuna beti garrantzitsua izan da Nafarroan, lurraldeak ezaugarri aproposak baititu mendi ibilaldiak eta zeharkaldiak egiteko. Baina zaletasunak izan ditu aldaketak; duela hogeitau urte, mendizale guziok elkar ezagutzen genuen, orain ez hainbeste. Lehen klubekin joaten ginen mendira, orain, berriz, jendea bere aldetik joaten da. Izan ere, egun mendizaleen %8-9 bakarrik daude federaturik. Arrazoiak da, nire ustez, jendeak ez dakiela federatua izateak dakartzan abantailak. Dena

den, zaila da zaletasuna antolatzea, mendizaletasunak askatasun kutsu handia daukalako.

**■ Zure ibilbidean une kritiko bat izan zen: euskal eta nafar federazioen banaketa. Nola bizi izan zenuen?**

Banaketa bete-betean tokatu zitzaidan, lehendakaria bainintzen. Nik 1964. urtean ezagutu nuen euskal-nafar federazioa, Banatu zirenean, 1986an, Nafarroako kiroleko kompetentziak eskuratu zitueneko, lehendakaria nintzen eta oso gaizki eraman nuen. Ordutik aurrera, harremana beste formula batzuen bidez mantentzen saiatu gara. Izan ere, Nafarroako Federazioak parte hartzen du Euskal Federazioeko batzarretan eta herrialdeetan antolatzen diren ekintzetan. Orain dela bi urte,

harremanek beste krisi bat izan zuten, baina orain antzinako harremana berreskuratut dugu.

**■ Pentsatu al duzue noizbait elkartzeko formula berri bat?**

Banatu ondoren nik aukera bat aurkeztu nuen. Bi federazioen arteko elkarte bat sortzea proposatu nuen. Legez federazioak banatuta egon behar zuten, baina elkarte bat sortzeko aukera genuen, eta badugu orain ere. Era horretan, bi federazioek elkarrekin nahi ditugun ekintzak antola genitzake. Baina ideia ez zitzaion gustatu Euskal Federazioari, uste zuelako elkarte horren sorrerak bere desagertzea ekarriko zuela, ez dakit zergatik. Hala ere, nik gogor eusten diot ideia horri.

→ Eva Aranguren





## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Zaborra

Ohi ez bezala, goizean goiz esnatu eta komun aldera abiatu naiz, itsu-itsuan eguneroko ohiturari jarraituz. Baina, ezustean, bidean zerbaitekin egin dut estropezu, nire radarrak jasota ez zuen objekturen bat jarri zait bide erdian. Ukitzen hasia, bat baino gehiago dela konitratu naiz, hainbat poltsa kirasdu pilatzen dira etxeko pasiloan.

Biraoka hasi, baina berehala ohartu naiz nik izan behar nuela errudun bakarra. Gehiegizko alkoholak ere izango zuen horretan zerikusia, baina ordu horietan horrelakorik aitortzea gogorregia iruditzen zait. Hortaz, lehenik eta behin nire urdaia askatzean tematu eta mendi tontorrean ikurrina jarri ostean, komuna zapaltzea lortu dut.

Pazientzia handikiz ekin diot ustel itxura duten poltsa pare bat atera hurbiltzeari, kalkulatu gisa honetako hiruzpalau buelta egin beharko ditudala kuxidade hori guztia begi-bistatik desgerrarazi artio. Lipar batez, auzokideari laguntza eskatzekotan egon naiz, baina oraindik 7.000 pezeta eta hiru arrautza zor dizkiodala oroitu naiz. Hobe nik neuk egitea.

Eskairekin behealdera arnasestuka iritsi naiz, poltsa batek isurtzen duen gai sailkaezin batekin erabat zikinduta.

Pelikula txar baina asko ikusitako pertsona izaki, paretik pasatzen den kotxe dotore bat geldiarazi dut, "Polizia, larrialdi bat da". Gidari harrituak ni eta nire poltsak sartzen ikusi, eta onena eman diodan helbidera jotzea dela deliberatu du.

Bidaian atsegin izaten salatu naiz, batez ere zabaltzen ari zen kiratsa estaltzeko. Eraikineria allegatu eta biziki eskertu diot zerbitzua, estatuaren segurtasunaren izenean. Ate nagusitik harro harro sartu eta zuzenean "Sr. Iturbe" dioen bulegora abiatu naiz. Erdian dagoen multzo érraldoian bota ditut bi poltsak, juxtu "Langileen eskubideak ez dira zaborra" dioen pankartaren azpian. Buelta eman eta oraindik beste hiruzpalau bidaia baditudala pentsatuz atera naiz.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Zangoza:** Pop-Rock Lehiaketa-ren barnean, gaur Rare Vocation taldeak Diagonal tabernan joko du, 21:30ean, eta 5 Elementos taldeak, Landa tabernan, 23:00etan.
- **Garralda:** Plazatik Salarat gaberako musika taldea elizan izanen da bihar, 12:45ean.
- **Gares:** Los Suaves rock taldeak bihar Gares aretoan joko du, 23:00etan.
- **Etzarri-Aranatz:** Imuntzo eta Beloki bikoteak herriko plazan joko du igandean, 19:30etan.
- **Iruñea:** Morau kantaria ostegunean Mendillorriko Bodeguita ostatuan izanen da, 20:00etan.

### ANTZERKIA

- **Donamaria:** Igandean, TEN Pimpilnpauxa taldeak *Zapatak hondaturik* lana taularatuko du herriko plazan, 18:30ean.
- **Barañain:** Porpol taldeak *Xolak badu lehoien berri* antzezlan eskainiko du asteazkenean, 18:00etan, udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

### BESTAK

- **Atarrabia:** IKAr'en euskaltegiaren 25. urteurreneko ospakizunen karietara, bihar jai eguna izanen da herrian. Goizeko hamaiketan kalejira egingen da herriko karriketatik; 14:30ean herri bazkaria izanen da Atarrabia frontoian, karaoke eta dantzaldi eta guzti; 18:00etan Udaletxe plazan Alder haur animazio-taldeak izanen da.

### ERAKUSKETAK

- **Etzarri-Aranatz:** Ekainaren 18 arte Orley Labiñano margolari kubatarraren ikasleek egin lanak daude kultur etxean, zinema eta bulego orduetan.

### LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Igandean Aire Zabaleko III. Pintura Lehiaketa egingen dute 10:00etatik 17:00etara, Takonerako parkean. Gaia eta teknika libreak dira. Antolatzaileek oihalak dohainik emanen dituzte, baita otordua ere. Izena egunean berean ematen ahal da, 12:00ak baino lehen.
- **Burlata:** Udalak antolaturiko jailetako kartel eta argazkilaritza lehiaketetarako

lanak aurkezteko epea ekainaren 16an bukatzen da. Informazio gehiago 948-245101 telefonoan.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Ekologistak Martxan taldeak igandean egingen den Bardearako martxara joateko autobusa antolatu du. Izena emateko deitu 948-222988 telefonora.
- **Iruñea:** Bihar, larunbatarekin, Arkakuso Onen Merkatu

Ttikia egingen dute, goizeko hamarretatik aurrera, San Jose plazan. Antigoaleko eta bigarren eskuko gauzak saldu edo trukutzen dira bertan.

- **Iruñea:** Karrikirik ikasle euskaldunei pisua bilatzeko zerbitzua abiatu du. Euskalduna bazara eta pisu bila bazabiltza, edota zure pisuan euskaldunendako lekua baduzu, zoaz Karrikirira (Xabier karrika, 2bis) edo hots egiezu (948-222589).

JOXE LACALLE



### "Txanpona sartu, eta listo"

Asteartean Portland San Antonio eskubaloit taldeak Jackson Richardson jokalaria berria aurkeztu zuen Arrosadiko Stick Bol taberna ezagunean. San Antonioko atezain Alexandru Buliganek, zoritxarrez, ezin izan zuen taldekide berriaren aurkezpenean. Aparkaldi mugatuko aldea da Arrosadia eta, dirudienez, Buliganek ez zuen autoa aparkatzeagatik behar bezala ordaindu. Lau zaindarirekin eztabaidatu eta gero (eta laurentzako autografoak sinatu eta gero), haletako batek erakutsi zion nola sartu behar diren txanponak makinaren zirrikitutik zona horretan aparkatuz gero. Bere lana baloia ate barrura sar ez daitezen salatzea baldin bada ere, badirudi Buliganek txanponak sartzen ikasteko arazo handirik ez zuela izan.